

CEAR-Euskadi

La Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi (CEAR-Euskadi) nació en 1989 gracias a la energía de personas voluntarias, que aportaban su tiempo y conocimientos para buscar respuestas a la situación de las personas refugiadas que llegaban a Euskadi. En el año 1996 la ong adquirió personalidad jurídica propia. Las restricciones de la política de asilo -cada vez mayores-, que dejaba sin protección a los refugiados, y el giro que en estos años han dado las migraciones contribuyeron a ampliar su ámbito de actuación hasta conformar la ong que es hoy CEAR-Euskadi.

Nuestra **MISIÓN** es promover la correcta aplicación y desarrollo de la Convención de Ginebra de 1951, de las normas internacionales de protección de las personas refugiadas, desplazadas y apátridas, y de los distintos tratados internacionales de defensa y promoción de los derechos humanos, en favor de las personas inmigrantes, buscando siempre el desarrollo humano integral.

Los **VALORES** que orientan nuestro trabajo son la justicia, el compromiso en la defensa de los derechos humanos y en la promoción de una ciudadanía crítica; la solidaridad, la igualdad y la dignidad de la identidad individual y colectiva.

Nuestros valores internos son la confianza en un capital humano, participativo y respetuoso con los demás, la independencia y la transparencia.

En coherencia con el Plan Estratégico, nuestra labor en defensa de los derechos de las personas refugiadas, desplazadas internas, apátridas e inmigrantes se desarrolla a través de distintas áreas de trabajo: el Área Social; el Área de Formación y Empleo; el Área Jurídica; Voluntariado; Sensibilización; Gestión Económico-financiera y Proyectos.

El **Área de Voluntariado** promueve el trabajo y la presencia del voluntariado en todos los servicios de la entidad, a través de la recepción de demandas de participación; búsqueda de perfiles acordes con las tareas que desarrolla; selección, acogida, seguimiento, información, formación y evaluación del desempeño de su trabajo en CEAR-Euskadi.

En coordinación con el resto de áreas, trabaja en la promoción de un voluntariado crítico y transformador, implicado con su entorno, y con la misión y los valores de CEAR-Euskadi; integrado en la estructura y en la toma de decisiones, que se sienta motivado, y pueda aportar su experiencia y su visión.

Con este objetivo se fomentan espacios de reflexión, de encuentro con las personas usuarias y jornadas de convivencia entre la gente de los diferentes equipos de trabajo (voluntaria y remunerada); además de seminarios de formación sobre asilo e inmigración.

El área trabaja también con las personas en prácticas para el desarrollo de su participación en la entidad.

Como resultado de la trayectoria de la organización en el trabajo con el voluntariado, CEAR-Euskadi ha dirigido la elaboración del II Plan Vasco de Voluntariado (2007-2010).

Origen de la Declaración

Esta declaración es la consecuencia, el final de un largo proceso de reflexión y debate sobre el voluntariado que soñamos para CEAR-Euskadi, y será nuestro marco de referencia en cuanto a la acción voluntaria.

Esta reflexión se ha llevado a cabo a través del proyecto *'El Voluntariado como Sujeto Social y Político en la Educación para el Desarrollo'*, financiado por la Diputación Foral de Bizkaia, que se enmarca dentro de las acciones y procesos que CEAR-Euskadi viene desempeñando en su trabajo por fomentar la construcción de una ciudadanía crítica.

Creemos que la propia concepción de la Educación para el Desarrollo implica, desde su dimensión política, una acción comprometida y transformadora. Creíamos que el voluntariado era en sí mismo una acción comprometida pero pensábamos también que sólo si esta acción se basaba en una reflexión crítica se convertía en transformadora. Esta idea nos obligaba a contrastar nuestro perfil de voluntariado -cada vez más tecnificado y profesionalizado- y a reflexionar sobre el significado de la acción voluntaria.

El objetivo era fomentar una concepción del voluntariado en clave de defensa y promoción de los derechos humanos entendidos como derecho al desarrollo, a la paz, a la igualdad de género y al medio ambiente.

El voluntariado que soñamos en CEAR-Euskadi

¿Qué entendemos por acción voluntaria?

Las voluntarias y voluntarios de CEAR-Euskadi nos definimos como **ciudadanía crítica, responsable y participativa**.

Como ciudadanas y ciudadanos entendemos que los derechos, cuando no son universales, se convierten en privilegios; sabemos que todo lo que sucede en el mundo está interrelacionado y nos sentimos responsables por encima de fronteras visibles e invisibles, por encima de vallas y muros, con la realidad de las personas.

Esta responsabilidad común y compartida con lo que sucede a nuestro alrededor, nos obliga a posicionarnos, a adquirir un compromiso y a participar activamente en su transformación y desarrollo.

La acción voluntaria es una forma de ser y estar en el mundo.

¿Qué soñamos para CEAR-Euskadi?

En CEAR-Euskadi soñamos con ser personas **transformadoras, críticas, combativas**. Soñamos con un voluntariado en el que 'quepamos' personas distintas, con capacidad para desilusionarnos y 'reilusionarnos' y para disfrutar de nuestras experiencias de voluntariado.

Soñamos con tener y aportar capacidad para trabajar en equipo, con ser personas activas y participativas, con ganas de aprender y con capacidad de aprendizaje técnico y emotivo (aportando equilibrio entre lo humano y lo técnico).

Una de nuestras principales motivaciones será la relación con las personas usuarias, una relación a la que aportaremos frescura. Nuestro trabajo como voluntarias y voluntarios de CEAR-Euskadi será la defensa de los derechos de las **personas refugiadas, desplazadas internas, apátridas e inmigrantes**.

Queremos adquirir y mantener un compromiso estable y duradero con la labor que desarrollamos, con el derecho de las personas refugiadas a desplazarse a un país seguro y recibir la protección del asilo y con la misión de CEAR-Euskadi, pero, sobre todo, queremos mantener un compromiso con la sociedad y con la construcción de otro mundo posible. Soñamos con ser un voluntariado sensibilizado y sensibilizador de su entorno, cercano a la realidad.

Soñamos con tener, dentro de CEAR-Euskadi, **poder para soñar y un espacio en la organización, con encontrarnos implicados e integrados en la estructura y en la toma de decisiones**, tanto en lo que respecta a la entidad como a sus actividades.

Soñamos con ser y sentirnos parte, participar en áreas de trabajo que rescaten espacios comunes para que las personas voluntarias podamos conocer y **aportar al trabajo global del equipo**. Esperamos sentirnos motivadas por la entidad; poder contribuir desde nuestra experiencia, conocimiento y habilidades, y contar con espacios propios de intercambio y debate, para compartir puntos de vista y contrastarlos. Esperamos estar informados sobre todo lo que ocurre en CEAR-Euskadi y en su entorno, y disponer de recursos materiales y espacios físicos para desempeñar nuestra labor en la organización.

Soñamos con que CEAR-Euskadi evolucione gracias a la contribución de su voluntariado. Soñamos con una organización que nos permita **contrastar sus formas de funcionar en el día a día** (que nos permita buscar y ofrecer más formas y vías de intervención, nuevas formas de trabajar y de relacionarse, etc.); que sepa escuchar y recoger nuestras aportaciones y **llevarlas a la práctica**; una entidad donde las personas voluntarias estemos y nos sintamos acompañadas.

CEAR-Euskadi

Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi) 1989an jaio zen pertsona errefuxiatuen egoerari erantzuna emateko denbora eta ezagupenak ekartzen zioten bolondresen energiari esker. 1996an gkeak berezko izaera juridikoa lortu zuen. Asilo politikaren murrizketak –geroz eta handiagoak-, errefuxiatuak babesgabe uzten zituztenak, eta azken urteetan migraketek egindako norabide aldaketek, erakundearen jarduketa eremua zabaltzea eragin dute, CEAR-Euskadi egun den gkea bihurtuz.

Gure **EGITEKOA** honako hauek egoki erabili eta gara daitezten sustatzea da: 1951ko Genevako Hitzarmena; errefuxiatuen, lekuz aldatutako en eta aberrigabeen babeserako nazioarteko arauak; eta giza eskubideak defendatu eta sustatzeko nazioarteko itunak. Hori guztia, etorkinen alde egiten da, betiere osoko giza garapenaren bila.

BALIO hauek bideratzen dute gure lana: justiziak, giza eskubideak defendatzeko eta herritar kritikoak sustatzeko konpromisoak, elkartasunak, berdintasunak eta banakako eta taldeko nortasunaren duintasunak.

Hauek dira Batzordearen barne-balioak: Batzordeko giza kapital handian (kapital parte-hartzailea eta gainerakoak errespetatzen dituen) duen konfiantza, independentzia eta gardentasuna.

Plan Estrategikoarekin koherentzian, honako **lan-eremu** hauen bidez garatzen dugu errefuxiatuen, beren herrialdean lekualdatzera behartutako en, aberrigabeen eta etorkinen eskubideak defendatzeko lana: Gizarte-arloa, Prestakuntza- eta enplegu-arloa, Zuzenbide-arloa, Boluntarioen arloa, Sentsibilizazio-arloa, Ekonomia- eta finantza-kudeaketaren arloa eta Proiektuen arloa.

Boluntarioen arloak boluntarioen lana sustatzen du, eta erakundeko zerbitzu guztietan barneratzen ditu boluntarioak. Horretarako, partaidetza-eskaerak jasotzen ditu; garatzen dituen zereginekin bat datozen profilak bilatzen ditu; eta boluntarioak hautatu, harrera eta jarraipena egin, informazioa eta prestakuntza eman eta CEAR-Euskadin egindako lanaren ebaluazioa egiten du.

Gainerako arloekin koordinatuta, mota honetako boluntarioak sustatzeko lan egiten du: boluntario kritiko eta eraldatzaileak, ingurunearekin eta CEAR-Euskadiren egitekoarekin eta balioekin inplikatuak, Batzordearen egituraren eta erabakiak hartzeko prozesuan barneratuak, motibatuak eta haien esperientzia eta ikuspuntua eman dezaketenak.

Helburu horrekin, hausnarketa-eremuak, erabiltzaileekin biltzeko eremuak, hainbat lan-taldetako jendea (boluntarioak eta soldatapekoak) elkartzeko bizikidetzajardunaldiak eta asiloari eta immigrazioari buruzko prestakuntza-mintegiak sustatzen ditu.

Praktiketan dagoen jendearekin ere lan egiten du arloak, praktiketan ari denak erakundean duen partaidetza garatzeko.

Erakundeak boluntarioekin egin izan duen lanaren emaitza gisa, CEAR-Euskadik zuzendu du Boluntarioen II. Euskal Plana (2007-2010) egiteko prozesua.

Adierazpenaren jatorria

CEAR-Euskadirako lortu nahi dugun boluntario-motaren hausnarketa- eta eztabaida-prozesu luzearen ondorioa eta amaiera da adierazpen hau, eta erreferentzia-markoa izango dugu ekintza boluntarioaren arloan.

'Boluntarioak, subjektu sozial eta politikoak, Garapenerako Hezkuntzan' proiektuaren bidez egin dugu hausnarketa, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatuta. Herritar kritikoen eraikuntza sustatzeko CEAR-Euskadi gauzatzen ari den ekintza eta prozesuen barruan kokatuta dago hausnarketa.

Gure ustez, Garapenerako Hezkuntzak jarduera konprometitua eta eraldatzailea eskatzen du, politika alorretik. Boluntarioen lana berez jarduera konprometitua zela uste genuen, baina, gure iritziz, jarduera hori hausnarketa kritikoan oinarritzen bazen bakarrik izan zitekeen eraldatzailea. Ideia hori zela-eta, egiaztatu egin behar genuen boluntarioen gure profila (gero eta boluntario teknifikatu eta profesionalizatuagoa), eta ekintza boluntarioen esanahiaz hausnartu behar genuen.

Horren guztiaren helburua zen giza eskubideak (garapenerako, bakerako, genero-berdintasunerako eta ingurumenerako eskubideak) defendatzen eta sustatzen zituzten boluntarioen ikusmoldea sustatzea.

CEAR-Euskadin nahi ditugun boluntarioak

Zer da guretzat ekintza boluntarioa?

CEAR-Euskadiko boluntarioek honela definitzen ditugu gure buruak: **herritar kritikoak, arduratsuak eta parte-hartzaileak.**

Herritar gisa, eskubideak ez badira unibertsalak, pribilegio bihurtzen direla uste dugu. Badakigu munduan gertatzen diren gauza guztiak lotuta daudela, eta pertsonen errealitatearen arduradun garelako iruditzen zaigu, ageriko mugetatik eta muga ikusezinetatik haratago, hesi eta horma guztien gainetik.

Ingurunean gertatzen denaren ardura denona dela uste dugunez, jarrera bat hartzera behartuta gaude, konpromiso bat hartu beharrean gara, eta aktiboki parte hartu behar dugu ingurunea eraldatzen eta garatzen.

Ekintza boluntarioa izateko modu bat da, munduan egoteko era bat.

Zer nahi dugu CEAR-Euskadirentzat?

CEAR-Euskadin, pertsona **eraldatzaile, kritiko** eta **borrokalaria** izan nahi dugu. Hainbat motatako pertsonak 'sartzeko moduko' boluntario-taldea lortu nahi dugu, itxaropena galdu eta 'itxaropena berreskuratzeko' gai izango garenak, eta boluntario-laneko esperientziez gozatuko dugunak.

Taldean lan egiteko gaitasuna izatea eta gaitasun hori ematea lortu nahi dugu, pertsona aktibo eta parte-hartzaileak izatea, ikasteko gogoia edukitzea eta ikaskuntza teknikorako eta

emozio-ikaskuntzarako gai izatea (giza alderdiaren eta alderdi teknikoaren artean oreka lortzea).

Erabiltzaileekin harremana edukitzea izango da gure motibazio nagusietako bat. Harreman horri freskotasuna emango diogu. CEAR-Euskadiko boluntarioen lana **errefuxiatuen, beren herrialdean lekualdatzera behartutakoen, aberrigabeen eta etorkinen** eskubideak defendatzea izango da.

Konpromiso egonkor eta iraunkorra hartu eta eduki nahi dugu garatzen dugun lanarekin, errefuxiatuek herrialde segurura joan eta asiloaren babes eskuratzeko duten eskubidearekin eta CEAR-Euskadiren egitekoarekin, baina, batez ere, konpromisoa hartu nahi dugu gizartearekin eta beste mota bateko munduaren eraikuntzarekin. Ingurunearekin sentsibilizatutako eta ingurunea sentsibilizatzeko moduko boluntarioak nahi ditugu, errealitatetik gertu bizi diren boluntarioak.

CEAR-Euskadin, **amets egiteko gaitasuna** izan nahi dugu, bai eta **toki bat ere erakundearen barruan, egiturari inplikaturik eta integraturik egoteko, eta erabakiak hartzeko**, bai erakundearen bertan, bai erakundeak egiten dituen jardueretan.

Erakundeko parte izan eta sentitu nahi dugu, eremu komunak berreskuratzeko dituzten lan-eremuetan parte hartu nahi dugu, boluntarioek **taldearen lan osoaren** berri izan dezagun eta **ekarpenak egin ahal izan ditzagun**. Erakundeak motibatzen gaituela sentitzea espero dugu; gure esperientzia, ezagutza eta trebetasunen bidez, erakundeari laguntzen diogula; eta trukerako eta eztabaidarako eremuak izango ditugula, ikuspuntuak trukatu eta egiaztatzeko. CEAR-Euskadin eta haren ingurunean gertatzen den guztiaren berri izatea espero dugu, bai eta erakundearen lan egin ahal izateko baliabide materialak eta eremu fisikoak edukitzea ere.

Boluntarioen laguntzari esker, CEAR-Euskadik bilakaera izatea nahi dugu. Hau eskatzen diogu erakundeari: **eguneroko lanean nola funtzionatzen duen egiaztatzen uztea** (esku hartzeko modu eta bide berriak, lan egiteko eta harremanak izateko modu berriak... bilatzen eta eskaintzen uztea); gure ekarpenak entzuten, jasotzen eta **gauzatzen** jakitea; erakunde horretan boluntarioak bakarrik ez egotea eta ez sentitzea bakarrik gaudela.